

13.URTEZ EUSKAL IDAZLEAK IDAZLE-GAIEI ERAKUSTEN "IDAZLE ESKOLAN"

Tere Irastortza, idazlea eta Idazle eskolako zuzendaria, **Pako Aristi**, idazlea eta irakaslea, **Saioa Labaka**, Asmoz fundazioko arduraduna eta **Itziar Gomez**, Idazle Eskolako ikasle izandakoa eta orain irakasle gisa aritzen dena izan dira edizio berri hau aurkezten.

Tere Irastortzak, Idazle Eskolako zuzendariak azaldu du nondik nora sortu zen Idazle eskola. Hasieran galdetzen ziotela ea idazten irakatsi ote zitekeen, eta berak baietz noski, musikariak ere joaten direla kontserbatoriora. Adierazi du Idazle Eskolaren ezaugarriak nabarmenena dela idazleak beraiek izatea irakasleak. Eta Asmoz Fundazioak kudeatzen duela bere webgunea, berak ematen diola euskarri digitala.

13. ikasturteko ibilbidea du dagoeneko Idazle Eskolak. Urtez urte, molde askotako euskal idazleak aritu dira. Azken ikasturtean aritu direnak edota aurten arituko direnak: **Pako Aristi, Bernardo Atxaga, Mikel Babiano, Harkaitz Cano, Itziar Gomez, Jexux Eizagirre, Jerardo Elortza, Juan Kruz Igerabide, Karmele Jaio, Tere Irastortza, Paulo Iztueta, Laura Mintegi, Edorta Jimenez, Iñaki Zubeldia.**

Eskolak emate hutsaz harantzago doa idazleen zeregina. Ariketetan oinarritutako eskola-metodologiak gain, ikasleek bigarren ikasturtean burutu behar duten lan pertsonaleko tutore ere izaten dira. Modu horretan, ikasleek, une oro, kalitatezko irakurle baten iritzia jasotzen dute.

Funtsean, urrian hasi eta maiatzeko azken astean amaituko diren eskoletan, larunbatero, genero eta araubide ezberdinetako lanak idazten eta zuzentzen erakusten diete idazleek idazle-gaiei.

Pako Aristik ere hitz egin digu bere irakasle eskarmentuaz. Esan du idazteko ofizioari suposatzen zaion bakardadean murgiltzeko baliabideak eskaintzen dituela Idazle Eskolak. Idazteko irakurri egin behar dela, bai ondo idatzita dauden testuak eta baita gaizki idatzitakoak ere, jakiteko zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Idazleak lortu behar duela aholkuak eta teknika barneratzea, gero oztoporik gabe idazteko. Hori bai, gero ikasitakoak kaxoi batean sartzea komeni dela eta norberak bere estiloa topatzea. Beti norbaitentzat idazten dela eta irakurlearengana iristeko moduan idatzi behar dela. "Horretarako estrategiak erakusten dira Idazle

IDAZLE ESKOLA

2. or.

Eskolan", hala esan du; "batzuk frogatuta daude, baina besteak asmatzeko. Horixe da sorkuntza".

Itziar Gomez ikasle ohia eta orain Idazle Eskolako irakasle dena bere eskarmentuaz mintzatu da. Hasieran ikasle gisa aritu zela eta bilatzen zuela bere idazteko grina bideratzeko leku bat. Eta horixe eta gehiago topatu zituela Idazle Eskolan. Esan du ez dela erraza mundu horretan murgildu nahi duen jendea topatzea eta larunbatero Bergarara joatea eta lagunarte atsegin batean aritzea gozamina dela. Orain irakasle lanetan ere ibiltzen da eta saiatzen dela bera ikaslea zenean jaso nahi zituenak azaltzen ikasleei. Denek esan dute idazleak etengabe jarraitzen duela ikasten. Eta irakurtzea dela idazten ikasteko biderik eraginkorrenetakoa.

Idazle Eskolako gradu-ondo amaierarako hainbat idazle-gaik libururen bat edo hainbat artikulu argitaratu du eta alde horretatik, soziologikoki, idazle bihurtzen da. Denak ez dira ezagun egiten berehala liburua argitaratzen dutelako, baina aipa ditzakegu, besteak beste, Idazle Eskolan aritutako ikasleen artean; Karmele Igartua Bengoa, Maribel Aiertza, Juan Luis Mugertza, Leire Zubeldia, Ione Gorostartzu, Xabi López, Unai Baztarrika, Izaskun Etxeberria, Joseba Peña, Idoia Gereñu, Adriano Mata, Mikel Etxaburu, Ainara Maia... Poesian, narrazioan, antzerkian... eta genero anitzetan.

Beste batzuk, bere langintza profesionalean trebatuago sentitzen dira. Asko dira idazle-gaiek ondoren hartzen dituzten bideak, baina azpimarragarria da IDAZLE ESKOLAK sortu duen mugimendua, ikasle eta ikasle-ohien artean, eta sortzen eta gauzatzen diren proiektuak eta proiektu horien bizitasuna, kalitatea eta iraupena.

Horien artean aipatu behar dira:

- Idazle Eskolaren beka. Beka hau irabazi zuen lehen ikasleen artean egon zen Karmele Igartua Bengoa aretxabaletarra, duela bi urte zendu zena. Hori dela eta, Idazle Eskolako beka bere izena hartu du eta urtean behin idazlea gogoratzen da bekaren aitzakiaz eta bere hainbat lan irakurri eta zabaltzen.
- Gure webgunea; www.idazten.com
- *Luma Berrien eleak* aldizkaria, ikasturte amaieran argitaratzen duguna.
- Ikasle ohiekin burutzen diren mintegiak
 - Idatzi eta Irakurri
 - Ilunabar literarioak

Gradu-ondoko eskolak Bergaran izaten dira larunbatetan, goizeko 9:30etatik 13:30etara . Baina Bergarako UNEDek eskaintzen dio IDAZLE ESKOLARI azpiegitura gainerako mintegiak aste barruan ere egin ahal izateko.

FORMAKUNTZA SEMIPRESENTZIALA

Gainera, aurtengo berrikuntzen artean IDAZLE ESKOLAK bere metodologia hedatzeko asmoa ere badu. Norberak bere lanak idazten eta zuzentzen erakusteaz gain, dagoeneko ondo frogatu den metodologia hedatu egin nahi da idazketa lantzen den beste alor batzuetara ere, hala nola, irakaskuntza, administrazioa.

Begarako UNEDen egiten diren arren ikasketak, alderdi telematikoak ere garrantzi handia izan du formakuntza honetan hasieratik, eta horretarako ASMOZEN eskutik antolatu da gure plataforma.

Eta bestetik gaur egun bide birtualak ematen dituen aukerak profitatuz www.idazten.com orrian ikasleen lanak argitaratuz. Izan ere, webguneek permititzen baitute bestela argitaratzen zail diren lanak (generoagatik edo luzeragatik , esate batera) irakurtzeko moduan jartzea.

Bide telematikoak elkarlanerako sare eta bide bihurtzen dira beraz, eta idazteko lan bakartiari, zuzentzeko eta irakurlea bilatzeko aukera ematen dio IDAZLE ESKOLAKO idazle-gaiari.

Urteetako esperientzia pilatu horri esker, joan den urtean lehenengoz modu erdi presentzian ere antolatu ziren eskolak. Ikasleak urtean sei saiotara joan behar du (gehiagotara ere joan daiteke noski, nahi izanez gero), eta bi tutoretza pertsonaletan aurkeztu behar ditu bere lanak.

MODULUAK

Gradu-ondokoa bi urteko formakuntza bada ere, eta berez, graduatuta dauden ikasleentzat, formakuntza honek irekitzen dizkie ateak literaturarekin interesatuta dauden beste ikasle batzuei ere. Eta horretarako hainbat modulu antolatzen dira.

AZAROAN eta ABENDUAN

- ← **Tere Irastortza** *Poesia Idatzi* (Urtarrilera arte)
- ← **Itziar Gomez** *Ahozko idazkera-Gidoigintza*

←

← **URTARRILEAN eta OTSAILEAN**

Edorta Jimenez *Ipuinak idatzi / Nobelak idatzi*

← **OTSAILEAN eta MARTXOAN**

- ← **Mikel Babiano** *Itzulpengintza eta Literatura*
- ← **Jexux Eizagirre-Eñaut Agirre** *Prosaren erritmoa*

←

APIRILEAN eta MAIATZEAN

Pako Aristi *Iritzi artikuluak*

IDAZLEAK IRAKURLE Mintegiak

Euskal idazleek nola idatzi eta idazten duten ikasteko mintegiak. Asko ikasten da entzunez beste idazleei zein erronka eta zein zailtasuni egin dioten aurre idazterakoan. Baita beste idazle batzuek irakurtzeak zertan eta nola laguntzen duen ulertzen ere. Horren berri jasotzeko egiten dira.

Azken bost urteetan hilean behin euskal idazleak IDAZLE ESKOLAra etorri eta bere liburuez hitz egiten dute. Horretarako, ikasleek liburu hori irakurrita dute eta landua eta idazleak bere lana aurkezten die. Edizio batzuetan gai monografiko bat aukeratzen da. Joan den urtean, esate batera, Bakean ala gerran, historia eta narraziogintza. Aurten berriz lekuak hautatzeak eta lekuez hausnartzeak literaturlanari irekitzen dizkien aukerez arituko gara, eta horretarako ere hainbat euskal idazle gonbidatu dugu. **Laura Mintegi eta Karmele Jaio** arituko dira beren liburuez, launa astez. Gainera **Jerardo Elortzak** Arantzazu eta bere inguruetan sortu den literaturaz jardungo da eta Arantzazun barrena egingo dugu hitzaldi-ibilaldia. Eta **Paulo Iztuetak** Orixeri buruzko bi saio emango ditu. Ikasturtea Orixeren berri emango digun ibilbide literario batekin abiatuko da, urriaren 31n Orexan.

GELAZ KANPO BALIABIDEAK ANITZAK DIRA IDAZLE ESKOLAN

Baliabide horien helburuak bi dira :

- Elkarren artean idazten eta zuzentzen ikastea, hainbat mintegiren bidez

- Argitaratzeko idazten eta irakurleen iritzia jasoz zuzentzen ikastea.

ALDIZKARIA

Ez da ahaztu behar IDAZLE ESKOLAREN helburuetako bat idazle berriak ezagutaraztea ere badela. Erronka handi bat da, beraz, urtean behin argitaratzen den *Luma berrien eleak* aldizkaria sortu genuen, bai aurretik, lanak edo liburuak argitaratu dituztenentzat, baita sekula ezer argitaratu ez dutenentzat ere.

EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEETAN KOLABORAZIOAK

ZAZPIKA aldizkarian

EGAN aldizkarian

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian

www.idazten.com orrian

- **Bergarako UNEDek eskaintzen du Tutela akademikoa eta Hezkuntza Sailak homologatzen duen gradu-ondokoa**

Horretarako bi ikasturte beharko dira (300 eskola-ordu).

Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuak tutelatutako gradu-ondoko honek Bergarako UNEDen titulua jasoko du. Hezkuntza Sailak homologatutako gradu-ondokoa da. Asmoz Fundazioaren, UNEDen eta Bergarako Udalaren laguntza jasotzen ditu.

Saioa Labakak, Asmoz Fundazioko arduradunak eman ditu Matrikulazioari buruzko xehetasunak.

Matrikula epea zabalik dago urriaren 16ra bitarte ikasle berrientzat eta urriaren 10erako aurreko ikasturteetako ikasleentzat.

Urteko 1200 eurokoa da matrikula.

Matrikulatzeko : 943212369 edo arse@asmoz.org

Harremanetarako : tirastortza@idazten.com

639-456204 edo itzigosa@hotmail.com

Informazio gehiago :

www.idazten.com edo <http://ieskola.asmoz.org>